



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2008-04-08**

VIURTEA 1.402.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Maitane Goñi hezitzailea, haur eskolan, umetxoekin, trenaren abestiarekin jolasean. N. URBIZU

HAURREN TXOKOAREN LEHEN URTEA

AMEZKETA Irailean zabaladu zituen ateak Amezketako haur eskolak; 9 haur joaten dira bertara egunero 5

Bizikleta martxa antolatu dute AHTren aurka, Villabonatik Ibarrra

TOLOSALDEA Larunbatean, Tolosaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladek antolatua 6

Kilometroak 2008k bigarren eskuko azoka antolatu du larunbat honetarako Tolosan

IRURA Garbiketa eta ingurugiro batzordeak bultzaturikoa izan da egitasmoa; Triangulo plazan izango da, 09:30etik 13:30ak arte 4

San Cristobal taldearen aurka galdu du Aurrerak 4-1eko emaitzarekin

LEITZA Aurkariak gogor aritu ziren, mailaz igotzeko aukera dutelako, bigarren baitoaz 7

hitza info

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Harpidedunentzat
%25 merkeago

hitza®

Tolosako HITZAren bulegoan eskuragarri.




ZeU deapandegi berriak



zeu
Ilargipandegia

Sarria klara 2, Tolosa

txanda: 943 671 427.

Euskarazko komunikabideen inguruko mahai ingurua, bihar udaletxean

Tolosa » HITZAren 5. urteurrenaren harira antolaturiko ekitaldia da; 19:30ean hasita hainbat adituk jorratuko dute gaia.

ERREDAKZIOA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZak 5 urte bete zituen pasa den martxoaren 25ean, eta hori dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Larunbatean izan zen egun bereziarena, haurrentzako eta helduentzako hainbat ekitaldirekin. Larunbatekoak igarota, bihar bertan izango da hurrengo hitzordua, euskara eta komunikabideak hizpide izango dituzten mahai ingurua.

Tolosako udaletxeko batzar aretoan izango da, 19:30etik aurrera; hainbat aditu euskarazko komunikabideen inguruan ariko dira Nerea Pikabea alegiar kazetariari moderatzaile lanak egingo dituelarik.

Tokiko eta nazio mailako euskarazko komunikabideak

Batetik, nazio mailan aski ezagunak diren bi kazetari izango dira, Martxelo Otamendi *Berria* egunkariko zuzendaria, eta Jaime Otamendi ETBko albitegietakoa burua. Bestetik, tokiko euskarazko komunikabideetan adituak diren Jon Miranda Txolarre irratiko zu-

zendaria, eta Joxemi Saizar, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZaren zuzendari ohia ere izango dira. Beraz, tokiko nahiz nazio mailako ikuspegia emango dute, komunikabideen bilakaera, euskararekiko zuten helburua eta gaur egun dutena, euskara batua eta euskalkia... bezalako puntuak jorratuz. Eta,

» MAHAI INGURUA

- **Bihar.** 19:30ean, Tolosako udaletxeko batzar aretoan.
- **Gaia.** Euskarazko komunikabideak.
- **Partaideak.** Jaime Otamendi, Martxelo Otamendi, Jaime Otamendi, Joxemi Saizar eta Jon Miranda.

noski, kazetarien txandaren ostean, mahai ingurura joaten direnen txanda izango da, galderak egin eta nahi duten gaia jorratzeko eskuta ahalko dutelarik.

Herritar guztiak daude gonbidatuta, bihar 19:30ean, HITZak antolaturiko ekitaldian parte hartze-
ra.



Jai giro polita bertso afarian

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA » Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzaren bosgarren urteurrena dela-eta pasaden larunbateko izan zen egun bereziarena, adin gutxietan zuzenduriko ekitaldiekin. Horietako bat Oargi mendietan elkartean egin zuten bertso afaria izan zen. 60

lagun inguru elkartu ziren bertan, eta giro polita sortu zen, bereziki, Armaia Agirre, Jesus Mari Irazu eta Diego Riaño bertsoetan hasi zirenean. Festak afalostean ere jarraitu zuten, Tolosako kaleetan barrena egin zuten triki poteoarekin. HITZA

G Gutunak

Noaren kontzertua eta Biladi elkarteak

Iragan larunbatean, Palestinaren aldeko Biladi elkarteak, Noaren aurkako elkarretaratzea deitu zuten egunkari honen bidez datoren apirilak 11rako. Astebete lehenago elkarte honetako kide baten telefono deia jaso nuen udaletxean gauza bera azaltzeko, eta hiruzpantalau egun beranduago herri honetako gazte asanbalada baten eskutitza jaso nuen antzerako salaketa eginez. Alegia, Noa abeslaria, ez zela ongi etorria izango gure herri honetan.

Ez danere asmoa lerro hauen bidez ekialde hurbilean gertatzen denari buruzko gogoeta egitea eta ez naiz hasiko bertan Noa abeslari ezagunaren ibilbidearen azterketa egiten. Bat etor ninteke hein handi batean Biladi elkarteak kideek bertako gatazkari buruz egiten duten hausnarketaren inguruan. Ez ordea datorren ostiraleko kontzertuaren aurrean deitu duten salaketa ekimenarekin.

Noa Tolosara, abeslari edo sor-

tzaille gisa dator. Hortaz, kultur batzordeko buru bezala, Noa artista, abeslaria eta sortzailea izango da baloratu dezakedana eta bertara ekartzea sekulako lorpena dela deritot. Bere aurretik, Mundua Tolosan, ekimenaren bitartez, Marizta, Cesaria Evora, Carlos Nuñez... bezalako nazioarte mailako artistak ekarri ditugu; inork gutxiak pentsatuko luke hauek inoiz Tolosan jardungo zirenik, baina hala da, eta gure ustez ondo goaz.

Orain bizpahiru urte, AVTKo (Asociacion Victimas del Terrorismo) kideek ondorengo baieztapean egin zuten: «Un sector impregnado del independentismo y que ha sido utilizado por el mundo abertzale radical es el cultural. Así, una simple canción se puede convertir en una batalla ideológica».

Baieztapen hori aintzakotzat hartuz, euskal sorkuntzan dabilen hainbat musikari eta taldeen kontrako ekimenak bultzatu zituzten. Besteren artean Berri Txarrak, Leihotik eta Kontrabanda bezalako taldeak eta Fermin Muguruza bezalako artisten aurkako

boikota nabarmena izan zen, eta ez ziren gutxi izan boikot honen ondorioz bertan behera gelditu ziren kontzertuak.

AVTren ustez artistak baino, ET Aren adar kulturala baino ez ziren (nahiz eta batek baino gehiagok ET Aren alde ezer gutxi esan zuten), eta hortaz amoral eta mingarria zitzaizen herri eta hiri ezberdinetako programatzaileak hauen aktuzioak aurreikusita eta ordaintzea.

Gogorra suertatu zitzaigun zentzugabeko boikot hura. Batetik adierazpen askatasunaren aurka zihola eta besteetik esparru gutxiak zipiritintzen dituen politikak mardaratuak bere *ekarpena* egiten zuelako kultur gintzan ere.

Hura guztia deitoragarria, gaitzesgarria iruditu zitzaidan. Batzuek akaso, asko sufritu zutelako, bortizkeriaren eta kultur sorkuntzaren arteko parekotasun hau argi eta garbi ikusten zuten, eta bertan azterketa eta ondorioekin bat ez gentozenei pelperkia eta konplizitateak egotzi zituzten.

Tamalez, eta agian erraturik na-

bil, antzekotasun handiegia dukesat ordungo jarrera haren eta gaurko honen artean. Talde ezberdinek dira batean eta bestean, baina ondorio berdineraristeko ibilbide eta argudio berberak erabili direla dirudi.

Edozein kasutan zilegi deritot adierazpen askatasunez aritzea eta deitu duten elkarretaratzea planteatzea. Ez nator bat, baina zilegia da.

Noa Tolosara dator. Sarrerak agortu dira. Noa artistak, Noa abeslariak, Leidor aretoa betekoduz; artista eta abeslari bezala handia delako. Ni neu kontzertura joango naiz, inork pentsatuko al du horregatik Palestinaren zapal-kuntza babesten dudunik? Mugaruzarenera joanagatik ETA babesten dudunik? Silvio Rodriguez gustukoa izanagatik Kubako erregimenarekin kritikoa izan ez naitkeenik? Militarista al naiz Charlton Hestonen filmeak ikusteagatik? Iraken okupazioaren aldekoa kotxean gasolina erabiltzeagatik?

Andoni Iturzaeta (Tolosako Udaleko kultur zinegotzia). Tolosa.

Laburrak

Omenduz ekitaldiko bazkarian izen-ematea

IRURA » Omenduz ekitaldia izango da larunbatean, 12:30ean, herriko plazan. Bertan, Laskibar eta Jauregi-Berri baserrietako ordezkariek omenduko dituzte, 2007ko Tolosako lekale lehiaketako bigarren eta lehen saikatuak omenduko dituzte. Aitor Mendiluze bertsolaria ere, 2007ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazlea, eta Lore Amenabar soinuolea, 2007ko Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketan infantil mailako 2. saikatu. Ekitaldian bazkaria izango da, eta parte hartzeko txartelak Zaharren Biltokian, udaletxean eta liburutegian eskuratu ahaliko dira, 20 eurotan nagusienak eta 10 eurotan 12 urte artekoenak. Txartelak lortzeko azkeneko eguna apirilaren 9a izango da.

Tolosako Kup 08 txapelketan izen-ematea

TOLOSA » Tolosa Kup 08 txapelketan izena emateko aukera dago dagoeneko. Apirilaren 21era arte egin ahaliko da, www.tolosakouda-la.net-en edota Gazte Informazio Bulegoan. 75 euro ordaindu beharko dira.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aizuntulo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIAK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Berazubiko futbol zelaietan jokatu zuten larunbatean Tolosakoek, Elbar Bren aurka. NAJARA GARCIA

Bigarren zatian ongi aritu baziren ere, ez zuten lortu garaipena erdiestea

Futbola » Eibar B taldearen aurka 2-2 berdindu zuten Tolosa CFkoek, etxean jokotutako norgehiagokan.

ERREDAKZIOA

Tolosa CFkoak berdinketarekin konformatu behar izan zuten larunbateko partidaren. Eibar Bkoak izan zituzten aurkari, eta etxean jokatu zuten norgehiagokan.

Lehendabiziko zatian galtzen hasi ziren urdinak, nabarmen gailendu baiziren Eibarrekoak. Jose

Manuel Luluaga entrenatzaile berraren esanetan, «bigarren zatian, Tolosakoak nagusitu ziren, baina partidari ia buelta eman ziotela ziru-dienean, hiru minutu igaro eta gero, berdinketaren gola sartu zuten kanpotarrek». Bestalde, azaldu zuten ere, lehendabiziko zatian ez zirela ongi aritu. Hala ere, aurkari-ek hainbat hankasartze ere egin zituzten. Bigarren zatian, aukera ugari izan zituzten, eta ez zuten asmatu jokaldiak amaitzen.

Gorka Mendizabalaren ostean Jose Manuel Luluaga da berriro Tolosa CFko entrenatzailea. Bere bigarren norgehiagoka zen larun-

batekoa eta gustura aritu bazen ere, argi du hurrengo partidetan «joan den larunbatean egindako okerrak zuzendu behar a daudela, eta bigarren zatian aritu ziren bezala jokatu aurrerantzean ere».

Azken bi partidetan, orotara lau puntu erdietsi dituzte Tolosakoek. Asteburu honetan berriz Beasain izango dute aurkari. Jardunaldi hau besteak bezala zail ikusten du Luluaga entrenatzaileak. Baina badaki, mailan mantendu nahi badute hurrengo partidak irabazi beharra daukatela. Hala, hilaren 12an, 17:00etan izango dute hitzordua.

Laugarrenean ezin izan du Tolosa Aralarrek garaipena erdietsi

Saskibaloia » Jeitsiera faseko lehen norgehiagoka zuten asteburukoak; 90-75 galdu zuten Promociones Legarziakoen aurka.

ERREDAKZIOA

Orain arteko hiru partidetan garaile izan arren, Lizarrara eginiko bisitan ezin izan zuten garaipena erdietsi Tolosa Aralarrek. Datorren aste partidak berebiziko garrantzia hartu du. Jaitsiera faseko laugarren norgehiagokan etorri da beraien lehen porrota. Aurkari, Promociones Legarzia talde indartsua zuen. Hala ere, aurkako taldearen merituz gain tolosaren gaitasun ezak atsedendaldira

ko partida erabakita uztea ekarri zuten (49-29).

Lehen laurdenean, aurreko partidako azken hogeita minutuetan gertatu zen bezala, erasoaren aldeko apustua egin zuten bi taldeek. Lehen hamar minutuen amaierara 6 puntuko desabantailarekin iritsi ziren eskualdekoak (27-21).

Bigarren laurdenaren hasierak hitzaldi bera izan zuten, defentsa ahulak eta eraso finak. Dena den, 35-29koarekin kanpotarrei inspirazioa itzali zitzaie eta 14-0eko partzialarekin amaitu zuten laurdena (49-29). 20 puntuko desabantailarekin partida amaituta zegoela zirudien. Dena den, ordura arte sartu ez ziren saskiratzeekin aldea pixkanaka bada ere gutxiren joan zen eta berriro partidaren

sartzea lortu zuten hirugarren laurdenaren amaieran (63-58).

Azken laurdenak, ordea, errealtatera itzuli zuten Tolosa Aralar. Errebotea asko kargatzen zuten talde bati nola aurre egin ez zekielako, beste 27 puntu jaso zituzten azken hamar minutuetan, partida amaieran 90-75 galduaz.

Emaitza honekin eta multzoan izan diren besteekin, egoera konplikatu jarri dira tolosarrak. Horrekin, datorren astean etxean jokatu den derby-ak berebiziko garrantzia hartu du. Aurkari, garaipen bat gehiago duen Goierri Verkol taldea izango da. Partida larunbat arratsaldeko 18:00-etan jokatu da eta norgehiagoka hau baliatuko da Vicente Oterok merezi duen omenaldia jaso dezan.

7-6 galdu du Laskorainek Durangoko Sasikoaren aurka

Areto futbola » Gol ugari eta beste hainbat aukera izan ziren igandeko partidaren; hurrengo aurkaria Orio taldea izango dute.

ERREDAKZIOA

Eskura eduki arren eta gertu izanagatik ezin izan zuten punturik urratu Laskorainek Sasikoa taldearen aurkako partidaren. Herenegun, gol ugari eta beste horrenbeste aukera eskaini zituzten partidatik ikusgarriak patu gordinetara gorde zuten tolosarrentzat. Oraingoan, izan ere, Alonsoren mutilek emaitzak isladatzen duen baina lan gehiago egin zuten.

«Sobera ezaguna zen ikastolako partetik durangotarrek maneiatu irindarra». Nazional "A" mailan 2 urtetako ibilaldia izan duen Sasikoa taldeak, jokalaririk arriskutsu ugari ditu bere lerrotan, eta ederki azaldu zuten orain gogonetan ere.

Lehen zatian gardentasunez nagusitu ziren laskorainekoak. Telleriak 0-1-eko ezarri zuten, bizkaitarrek berdinketaren gola egitea erdietsi zuten jokaldi isolatu batean, baina Telletxeak eta Telleriak beste behin 1-3-koa sinatuko zuten aldagelatarako bidea hartu aurretik.

Tolosarrek joko serio bat erakutsi zuten lehen 20 minutuetan, gogor defentsan eta txukun erasoan.

Bigarren zatian bestalde, bizkaitarrek presioari ekin zioten behin eta berriz, Sasikoak egindako bi golek Gilen erantzuna jaso zuten, beste bitan zulatu bait zuten Josebak bizkaitarren atea. 3-5eko emaitzak itxura ona zuten baina minutu ugari ziren oraindik jokatu beharrekoak. Durangotarrek dena den, norgehiagokaren zama hartu zuten, eta markagailua biratu zuten 6-5-eko ipiniak. Atezain jokalariren bitartez, Zabalak norgehiagoka berdindu zuten, baina bukaeran epailek 10 metroko jaurtiketa libre bat pitatu zuten ikastolakoan aurka, 7-6koa erori zelarrik etxekoan alde.

Norgehiagoka txarra jokatu ez arren, porrota jaso zuten Alonsoren taldeak eta geratzen diren azken 6 norgehiagoketan ahalik eta itxura onena ematea izan behar du horitxoan helburua, horretarako norgehiagoka erakargarri dezentek geratzen bait dira hemendik amaiera arte. Lehen hitzordua, datorren astean Orioko talde sendoa ren aurka izango dute.

Filialari dagokionez, berdinketarekin konformatu behar izan zuten aurtengo maila berriari eusteko izaten ari den lehian.

Emendek elkarteak berriro ere arraunean hasteko prest da

Arrauna » Gipuzkoako batel txapelketan lehiatuko dira hilaren 12 eta 13an; Pasai San Pedron jokatuko dira estropada hauek.

ERREDAKZIOA

Urte askotako ibilbidea duen Emendek elkarteak Gipuzkoako batel txapelketan izango da. Estropadak hilaren 12 eta 13an Pasai San Pedron jokatuko dira, baita Euskadiko lehiaketa ere. Hiru tripulaziorrekin lehiatuko da: infantil-kadete-neskak, infantil-mutilak eta kadete-mutilak, Tolosako arraun harrobia eta kirola uztartuz.

Emendek elkarteak akordio batera iritsi da TAK elkartearen lehen-dakari den Sabino Alijostekin bai ekonomikoki eta baita kirol ikuspegitik ere, laguntza eskainiz. Emendekole lehen-dakaria Avelino Calvo da. Elkarte hau Arrauneko Euskal Federakuntzaren baitan

dago, beraz, lehiatzeko moduan legoke.

TAK elkarteangazte asko daude batel ligaxkan lehiatzen. Izan ere, araudiak dio kategori bakoitzeko talde bakar batek parte hartu dezakeela lehiaketa Ofizialetan. Horien artean, Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiakoa. TAK elkarteak arraunlari batzuk uzten dizkio Emendek taldeari eta Tolosar arraunlari gehiagok lehiatzeko aukera dute.

@ Irudietan. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Aste Santuko argazki lehiaketa antolatuta du, eta argazki batzuk jaso ditu dagoeneko. Irudietan atalean sar zaitetze eta ikusi ere bai. Anima zaitetz, eta joan pentsatzen nori eman merezitako bozka, finalera pasatzeko aukera emanez. Eta zergatik ez, zu zu ere anima zaitetzeko zeure Aste Santuko argazkia bidaltzeko.

www.tolosaldeko hitza.info

G **Gutunak****Kaltetuak denok gara!**

Abiadura Handiko Trenaren inguruan dagoen desinformazioari aurre egiteko helburuarekin, egitasmo honen aurka dagoen Zizurkilgo herritar talde batek herriko alkate den Maria Angeles Lazkanorenekin hitz egin beharra ikusi zuen.

Udaletxera hamar bat buelta egin ondoren, alkate anderearekin adostutako 4 bilera azken momentuan modu lotsagarrian ezeztatu ondoren, lehen baiezkoa esanez geroztik hilabete eta erdi igaro ondoren, eta alkatearen jokabide lotsagarria eta errespetu falta nabarmena guk TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN argitaratu ostean, martxoaren 10ean lortu zen alkatearekin biltzea. Zertarako? Informaziorik ez duela esateaz

gain, eskaturiko konpromiso eskaerei, beti bezala, baiezkoa emateko. Maria Angeles Lazkano Zizurkilgo alkateak harturiko konpromezuen artean, Eusko Jaurlaritzako teknikaria noiz etorriko zen herritar talde honi jakinaraztea zegoen, bete gabeko beste hainbaten artean. Honen helburua, egoera berdintsuan dauden pertsonak bilduz informazioa lortu eta zalantzak argitzea zen, hau da, talde moduan norbere eskubiak eta egoera argitzea eta defendatzea.

Maria Angeles Lazkano Zizurkilgo alkateak, ordea, ez du horrelakorik egin, ez baitio herritar arruntak axola. Harturiko konpromisoa ahaztuz, Eusko Jaurlaritzak (kriterio guztiz zentzugabe bidez) «zuzenki afektatuak» kontsideratzen dituenak soilik ari da biltzen,

banan-bana, udaletxean, Eusko Jaurlaritzako ordezkari batekin, alkatea «modu presentzial» batean dagoelarik. Modu honetan, herritarra zeharo galdurik aurkitzen da, esaten diotena egi hutsa eta aukera bakarra delakoan, eta zenbait kasutan, jakin gabe zenbait eskubide galtzea dakarren firmatu beharreko paper bat aurrean duelarik.

Alkate anderea, herritarren eskubideaz informatu, eta zabaldu egin beharko zenuke, zeintzu diren eman daitezkeen pausoak, zeintzu eskubideak, zer gerta litekeen eta abar...

Gai honen inguruan inor udaletxera informazio eske badoa, zuregan zuzentzeko agindua eman duzu. Zuk ez dakizu ezer, edo hori diozu behintzat. Zer da lotsagarria? Zure partiduaren interes makroekonomikoak defendatzen

dituzu; zu, zure postu egonkorrean manten zaitzaten ondo gertatzea besterik ez zaizu axola. Edozein modutan, hilabete bukaeran kilo-erdi inguru poltsikoan, eta Orion etxetxo eder bat izango baituzu, gainontzeko zizurkildargutzietre buru ginetik pasatzen zaien bitartean.

Lotsagarria da, bai Eusko Jaurlaritzaren, eta bai Zizurkilgo udal ordezkari maximoa den Maria Angeles Lazkanoren jarrera. Zuei ez zaizue ez herria, ez herritarra axola. Zuei diruak besterik ez dizue axola, eta diruarekin konpondu nahi duzue dena. Horretarako informazioa ezkutatu edota gezurra esan behar bada ere. «Zatitu eta irabaziko duzu».

Baina hemen denok gara afektatuak, neurri ezberdinean baina Zizurkilgo herriko denok. Oraindik

gainera zer datorkigun ohartu ez dena bame.

Abiadura Handiko Trenaren inguruko informazioa nahi duen edonork zabalik izango du, konpromezurik gabe, Atxulondo kultur etxeko atea, asteazkeneko 19:30ean.

Guk lanean jarraituko dugu egitasmo suntsitzaile hau geldidakin. Kriminalizatu egin nahi gaituzte, baina guk badakigun helburu duin batengatik ari garela lanean, eta modu oso duinean.

Ezer egin ezean gainean izango dugu, eta orduan beranduegi izango da. Zaila dirudi baina ez da ezinezkoa. Ondar aletxo txiki osatzen da basamortua.

Ez, ez, ez, AHTrik ez!

Amagoia Eskudero. (Zizurkilgo AHTren aurkako herritarren izenean).

Bigarren eskuko azoka antolatu du Kilometroak 2008k larunbaterako

Irura » Garbiketa eta Ingurugiro Batzordeak bultzatu du egitasmoa eta Tolosako Triangulo plazan egingo dute.

IMANOL GARCIA

Kilometroak 2008k bigarren eskuko azoka antolatu du larunbat honetarako. Tolosako Triangulo plazan egingo dute, 09:30ean hasi eta 13:30ak arte. Garbiketa eta Ingurugiro Batzordeak sortutako egitasmoa izan da. Nerea Bidaurreta Batzordeko kideak azaltzen duenez, «antolakuntzatik esan zigituen Batzorde guztiei ekitaldiren bat antolatzeko ideia emateko. Guri iruditu zitzaigun oso interesgarria, bigarren eskuko produktuei buelta ematea, eta hortik sortu zen ideia».

Izan ere, hezkuntzaren aldetik ere aukera ona ikusten dute, Bidaurretak dioenez: «Azoka hau egiterakoan ikasleei erakutsi diezaiokegu bigarren eskuko produk-



Nerea Bidaurreta eta Joxe Mendizabal, Kilometroaren koordinatzailea, bigarren eskuko azokaren kartelarekin. I. GARCIA

tuei erabilera bat eman daitekeela. Nahiz eta beraiek ez erabili egon daitekeela norbait interesatzen zaiona hori erabiltzea».

Hainbat postu egongo dira. Batzuk partikularrak izango dira eta bestetik eskualdeko ikastoletatik eta Astesuko Pello Errota eskola-

tik bildutako materiala izango da. Ikastetxetara materiala eramateko azken eguna etzi izango da. Postua jartzen duten partikularrek kuota bat ordaindu beharko diote antolakuntzari. Bestalde, ikastetxe bakoitzeko materialarekin postu bana jarriko da. Prezioak materiala

utzi duten ikasleek jarriko dituzte. Hortik ateratzen den dirua Kilometroak 2008rako izango da. Salutzen ez den materiala Kilometroak 2008rentzako geldituko da eta ekitaldi nagusiaren egunean jarriko den tonbolarako utziiko dute ziurrrena. Artelatzen enpresatik zein

INGURUGIROA ZAINDUZ

Garbiketa eta Ingurugiro Batzordea Kilometroak 2008ren baitan antolatzen diren ekitaldien txukuntasunaz arduratzen da, ingurugiroa kontuan hartuz. Hala, ekitaldi nagusiko zirkuituan zehar hainbat kontenedore jarriko dituzte, zabor ezberdinak jasotzeko. Bidaurretak azaltzen duenez, «zaborra ezberdindu egin behar dela adieraztea da helburua».

Batzorde honetatik proposamen bat atera da, aurreko Kilometroaren ez dena egin. Leku batzuk egokituko dira bai haurrak aldatu ahal izateko bai bularra eman ahal izateko ere.

Tolosako Udaletik laguntza jaso dute bigarren eskuko azoka antolatzeko.

Rallysprinterako jende bila

Kilometroak 2008ren baitan, hurrengo ekitaldia hilaren 26an egingo da, Nañarri-Irura I. Rallysprinta, hain zuzen. Antolakuntza aldetik ekitaldi handi izango da eta Kilometroak 2008tik azaldu dutenez, boluntarioak behar dituzte egun horretarako. Izena eman nahi dutenek Irurako Ikastolan bertan edo www.kilometroak.net helbidean egin dezakete.

txokoa **h**

4 sarrera pare zozketatuko ditugu!
deitu eta eskuratu



BRUESA GBC
Melilla Baloncesto

OSTIRALA

APIRILAK **11-20:30**

ILLUNBE



Amezketako haur eskolan gehienez ere 10 ikasle izan daitezke. Bi hezitzaile daude egun osoan zehar beraiekin. Irudian, lo egiteko itxurak egiten. N. URBIZU

Amezketako haur eskola irailean ireki zen eta 9 haur doaz egunero. Maitane Goñi eta Susana Damian hezitzaileak egoten dira egunero haur hauekin, ingurune fisiko eta soziala ezagutzera emateko asmoz.

Txikienak handitzeko bidean

Haur eskola berez 10 haurrentzat da eta aurtenguztira bederatzita daude, 0 eta 2 urte bitartekoak

Egun guztiak desberdinak dira eta egunen arabera ekintza ezberdinak egiten dituzte

Gurasoak haur eskolan izaten dira lehen egunetan, haurra eroso sentitu arte



Txikiena 5 hilabeterekin hasi zen. N. U.

NEREA URBIZU

Hantxe harrapatu genituen Amezketako biztanlerik gazteenak haur eskolan, jolasten, ukimena lantzen eta musika lasai-lasai entzuten.

Amezketako haur eskolak bederatzita haur hartzen ditu egunero. Zero eta bi urte bitarteko haurtxo hauek Maitane Goñirekin eta Susana Damianekin egoten dira haien lehenengo harremanak eta ezagutzak eskuratzen. Maitane Goñi antzuolarra koordinatzailea da eta «gustura» egiten du lan bertan: «Merezi du». 07:30etik 18:30era bitarte egon daitezke haurtxoak bertan.

Haur eskola berez 10 haurrentzat da, eta aurtenguztira bederatzita daude: zero eta urte bat dutenen artean bi, eta 1 eta 2 urte bitartekoak, berriz, 7. Goizean 8 haur egoten dira, eta arratsaldean beste bat azaltzen da.

Gaztetxoena 5 hilabeterekin hasi zen haur eskolan, «baina berez, lau hilabeterekin has daitezke».

Egun guztiak desberdinak dira

Programazioari jarraituz egiten dute lan, helburu zehatz batzuekin. Orokorrean «eguneroko erritmoa jarraitzen dugu eta ohitura batzuk badauzkate, hala nola, txapinak kentzea eta janzteia, hamarretakoa, bazkaltzeko ordua, siesarakoa... Herriari eskaintzen zaion zerbitzua da, «baina haurra- ren garapen oso bat lortzen saiatzen gara haur eskolan. Inguru fisiko eta soziala ezagutu dezaten lan egiten dugu».

Baina egun guztiak desberdinak dira, noski, eta egunen arabera, ekintza batzuk edo beste batzuk egiten dituzte: psikomotrizitatea, ipuinak kontatu, abestu, hitz egin, plastilina edo eskulanak, dantza, musika... Baina oso era librean.

Umetxo bakoitzak bere bazkaria eramaten du haur eskola partzuergoak banatutako terminoetan. Eta normalean, bazkaldu ondoren (11:45a aldera) paketea aldatzeko ordua izaten da, ondoren, goxo-goxo siesta egiteko.

Txoko desberdinak

Alde batetik, Amezketako haur eskolan gela nagusia daukate, eta honen baitan hainbat txoko daude antolatuta: jolasgunea izan daitekeena (joku simbolikoak, puzzleak, panpinak, jostailuak), psikomotrizitatearen txokoa, ipuinena, erakuntzarena, sukaldearena, eta adierazpenarena.

Beste aldean eta ate eta beirarekin bereiztuta, jangela eta sukaldetza daude, logela sehaskekin eta hamakekin, aldagela, hezitzaileentzako bulegoa eta komuna daude. «Txikia da, baina moldatzen gara», dio Maitane. Dena dela, ez da behin betiko lokala: kanpoaldea bada gune bat, eta «aire libre honetan gune itxia egiteko eskaera egiten gurenu».

Irudimenari ere txokoa

Altxorraren zakua eta jolas heuristikoa ere lantzen dute haur eskolan: bi jolas edo ekintza hauek behaketa edo irudimena lantzeko ere badira. Ukimenaren bidez material ezberdinak hartzen di-

tuzte txiki-txikienek eta objektuak manipulatu egiten dituzte.

Urte batetik gorakoek pentsamendua, hizkuntza, harreman pertsonalak eta haurren ekintzak egituratzen laguntzen dutenak ere egiten dituzte, hau da; jolas heuristikoa.

Argazkiak egin bitartean, dantzaren ordua iritsi zen, eta batzuek *Pirritx* eskatu zuten, eta baita jarri ere. Ondoren, trenaren txanda izan zen, eta ezer esan gabe, haurrek trenaren gabea zuten. Lo egiteko kantua entzun bezain laister, haurrak lurtean etzandu egin ziren.

Izena emateko epea maiatzan

Maiatzetik aurrera eman daitezke haur eskolan izena, baina urtean zehar beste bi aukera ere badira.

Maitane Goñi haur hezitzailearen arabera, «haur eskolako lehenengo egunak oso ondo joan ziren Amezketan. Normala da lehen egunetan baten batek gurasoen falta somatzea, baina ez da bat-batean gurasoengandik bereizten, egokitzapen egun batzuk baitaude honetarako». Gurasoak haur eskolan izaten dira lehen egunetan haurrarenekin, eta gero eta denbora gutxiago gelditzen dira, haurra eroso sentitu arte. «Txikiek errazagoa da egokitzapena. Adin batetik aurrera konsistenteagoak dira eta gehiago konurtzen dira, baina Amezketan ez dugu arazorik izan».

Maitane Goñi haur hezitzaileko goi mailako teknikaria da eta Susana Damian, berriz, haur hezitzaileko irakaslea. Hauek jarraitzen dituzte haur hezitzaileak, hainbat ordezkariekin batera.



Haurren gelaren beste aldean sukaldetza, aldagela eta logela daude. N. U.



Logela sehaska eta hamakak ere badaude. N. U.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Zakurra.** Bi zakur agertu dira Orexan. Bat Mastin arrazakoa eta bestea Husky arrazaren antzekoa. Galdu dituenak deitu dezala 943 68 22 14 telefono zenbakira. ■ **Zakurra.** Hispaniel arrazakoa, marroia eta txuria galdu da. Katea

darama arrastaka. Deitu telefono honetara: 943 68 21 62.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merkea. Interesatuak deitu 665 70 86 35 telefono zenbakira.



Ibarrako gaztetxean prentsaurrekoa eskaini zuten Tolosaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladetako kideek. ASIER IMAZ

AHTren aurkako bizikleta martxa antolatu dute larunbat honetarako

Gizartea » Tolosaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladetako kideek ekitaldiz beteriko bizikleta martxa aurkeztu dute.

ASIER IMAZ

Tolosako Gaztetxe eta Gazte Asanbladetako kideek «Abiadura Handiko Trenari ez!» esateko bizikleta martxa antolatu dute larunbat honetarako. Villabonatik irten-go da AHTren aurkako bizikleta martxa 15:30ean eta Ibarren amaituko da, gaztetxean egingo diren ekitaldiekin.

«Ez ditu gazteak ditugun arazoak konponduko»

Ibarrako gaztetxean eskualdeko Gazte Asanbladetako kideak elkartu ziren atzo larunbaterako osatu duten egitaraua aurkezteko.

Bertan, AHTk euren arazoak ez dituela konponduko azaldu zuten, «AHTren obrak gainean ditugu eta laster iritsiko dira gure eskualdera. Obra hauen inpaktu bisualaz gain, trenaren ondorio sozial, ekonomik eta politikoak ez dira nola nahikoak izango. AHTk gainera ez ditu gazteak ditugun arazoak konponduko, hala nola, etxebizitza arazoa, langabezia,....».

«Kaltetuak garelako, zuzenean edo zeharka: AHTrik ez!»

Tolosaldeko gazteek proiektuaren kostu ekonomikoa «izugarria» salatu zuten, «diru horrekin oinarritzko garraio bide publikoak hornitzea bermatuko» litzatekeela aldarrikatuz.

Hala nola, bizikleta martxa antolatzearen zergatia aipatutako arrazoi hauetan kokatu zuten; «Tolosaldeko gazteak zuzenean edo zeharka kaltetuak garelako,

AHTren aurkako bizikleta martxa antolatu dugu, Villabonatik hasi eta Ibarrraino».

» EGITARAUA

Apirilak 12, larunbata

■ **15:30ean.** Irteera Villabonako plazatik.

■ **16:15ean.** Txalapaterekin ongietorria Anoetako plazan.

■ **17:30ean.** Meriendatxoa Alegia-ko gaztetxean.

■ **18:30ean.** Ekitaldi nagusia Tolosako Plaza Berrian.

■ **Ondoren.** Ondoren txarangarekin kalejiran Ibarra.

■ **21:00etan.** Afaria Ibarako gaztetxean.

■ **22:00etan.** Kontzertuak Ibarako gaztetxean: Deficiencia Mental eta Agresive Combat taldeen eskutik. Amaieran talde sorpresa.



59 ikasleren elkartrukea Polonian

TOLOSA » Hirukideko batxilergoko 59 ikasle eta 4 arduradunek elkartrukea burutu zuten Poloniako Eskolapioen ikastetxe batekin, martxoaren 25etik herenegun arte. Bertako Poznan hirian hartu zuten ostatu ikasle poloniarren etxeetan eta Polonia ezagutzeaz gain, bidaian Munich, Praga, Berlin eta Paris ere ikusi zituzten. A. IMAZ

Laburrak

Udal Haur Eskolan aurrematrikula zabalik

IBARRA » Ibarako Udalen Hezkuntza batzordeak jakinarazi duenez, Udal Haur Eskolan aurrematrikula egiteko epea irekita aurkitzen da, eta horrela jarraituko du apirilaren 18ra bitarte. Hezkuntza batzordeak azaldu duenez, 0-2 urteko neska-mutilen aurrematrikula egiteko bi bide zabaldu dituzte; Udaletxera joan eta Euskara Zerkibituan izen emanaz edota telefonoz deituz 943 67 38 27 zenbakira. 2-3 urteko neska-mutilei dago kienez, Hezkuntza batzordeak azaldu duenez Ibarako Uzturpe Ikastolan eman beharko dute izena.

Uztailean begirale izateko lan poltsarako deialdia

IBARRA » Uzturpe Ikastolak eta Ibarako Udalak elkarlanean begirale izateko lan poltsa eratzeko deialdia luzatu dute, *Uztailla Oporretan Euskaraz 2008* egitasmoaren barnean. Deialdiaren arduradunek lan poltsa osatzeko garaian, kontuan hiru baldintza izango dituztela azaldu dute: «euskaraz jakitea, begirale titulua izatea eta ibartarra izatea balioetsiko dira». Kurrikuluma e-mailaz helbide honetara bidali beharko dira apirilaren 18a baino lehen: ibarra@ikastola.net. E-mailan gaia jartzeko unean, *oporretan euskaraz* ipini beharko dute izena ematen dutenek.

Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Sendabelarren inguruan ikasten

LEITZA ■ Joan den larunbatean sendabelarren inguruko tailerraren lehenengo jardunaldia egin zuten Aurrera elkarteak alde zaharrean duen egoitzan. Adin ezberdinetako 15 lagun bildu ziren bertan eta Mai Etxeberria aritu zen irakasle lanetan. Tailerra praktikoa izan zen eta izena eman zutenek txanpua, aho-elixirra eta masajerako olioak egiten ikasi zuten, besteak beste. Tailerra 10:00etan hasi eta 13:00etan amaitu zen. Datorren larunbatean Aurreran elkartuko dira eta azkeneko saio honekin amaituko da Aurrerako etxe-batzordekoek sendabelarren inguruan antolatu duten lehenengo ikastaro hau. **N. GARZIA**



Datorren larunbatean Pamplona taldearen aurka jokatuko dute Arkixkilen, goizean. **JAIONE ASTIBIA**

Berriozarko San Cristobal taldeak lortu ditu 3 puntuak

Futbola ■ 4-1 irabazi zieten San Cristobal taldekoek Aurrera taldekoei larunbatean Berriozarren jokatutako partidari.

NAIARA GARZIA

Joan den larunbatean Berriozarren San Cristobal taldearen aurka jokatutako norgehiagokan 4-1 galdutako zuten leitzarrek. Aurreratik azaldu dutenez, «aurkariek zerbait jokoan zutela nabaritu egin zen partidaren zehar».

Izan ere, San Cristobal bigarren doa sailkapen orokorrean, Lagunak taldearen atzetik, eta mailaz igotzeko aukerak ditu. «Lehenen-

go zatia gogorra izan zen, lehiatua», diote Aurreratik, «aukerak izan genituen, bai guk, bai berriek». Imanol Urkiolak gol bat sartu zuen, baina baliogabetu egin zioten. «Antza denez atezainari falta egin zion». Beraz, gol hau baliogabetu ondoren, 0-0ko markagailuarekin iritsi ziren atsendaldira.

4 gol jarraian

Bigarren zatian Jon Arangoak gola sartu ondoren leitzarrek aurretik jarri ziren, baina orduan gauzak aldatu ziren, San Cristobal taldekoek 4 gol jarraian sartu baitzituzten. «Beraiek urduri jarri ziren, aurretik denboraldian mailaz igotzeko aukera baitaukate eta erasotzen

hasi ziren, eta 5 minututan partidari buelta eman zioten. 2 gol sartu ondoren, aurretik jarri ziren, eta ondoren beste 2 sartu zituzten».

Ateraldia Hernanira

Datorren larunbatean Pamplona taldearen aurka jokatuko dute leitzarrek Arkixkilen. Normalean partidak arratsaldean izaten diren arren norgehiagoka hau goizean jokatuko dute, eguerdian sagardotegira joanen baitira. «Urtero egiten dugu ateraldi bat», azaldu dute Aurreratik. «Herriko futbolari guztiak joaten gara, helduen, gazteen eta nesken taldea. Autobusean joaten gara denok Hernanira eta gero bertan parranda egingen dugu».

Gizonezko bat atxilotu dute 2 sute eragiteagatik

Tolosa ■ Igande goizean atalondo bati su eman zion, baita larunbat goizean ere, San Esteban auzoko etxe bati.

ERREDAKZIOA

Tolosako Ertzaintzeko agenteek herenegun goizean J.C.O.B., 47 urteko gizonezkoa atxilotu zuten etxebizitza-erakin batean su eragiteagatik. Suaren eraginez 79 urteko auzotar bat eta Ertzaintzaren agente bat zauritu ziren, eta Asuncion Klinikara eraman behar izan zituzten. Atxilotutako gizonezkoak, Ertzaintzak azaldu duenez, buru-nahasteren bat du, eta larunbat goizean Tolosako beste etxe batean antzeko sute bat eragiteagatik identifikatu eta Donostiako ospitale psikiatrikora eraman zuten.

Herenegun goizeko hamaikak inguruan, Tolosako Santa Klara kalean kokatutako etxebizitza-erakin batean, egurrezko egitura duena, sutea zegoela ohartarazi zioten Ertzaintzari. Patruilak ber-

taratu zirenean agenteetako bat sutea itzaltzen saiatu zen 2 su-itzalgaile erabiliz, auzokoak egoeraren jakinean jartzeaz gain.

Suhiltzaileak heltzean, sutea kontrolpean geratu zen, eta auzokoak etxeetatik aterarazi zituzten eraikina aireztatzeko. Ke-arnasketaren ondorioz, 79 urteko andre bat eta sutearen itzalketan parte hartu zuen ertzaina Asuncion Klinikara eraman zituzten.

Agenteek handik hurbil gizonezko bat atxilotu zuten ustez sutearen parte hartzeagatik. Atxilotutako pertsona hau larunbat goizean San Esteban auzoko etxe batean antzeko gertaera eragiteagatik identifikatu zuten. Orduan aipatutako gizonezkoak sutea berak eragin zuela aitortu zien agenteei. Erakusten ari zen portaeraren aurrean, eta buru-ezintasunen bat izan zezakeela konturaturata, Donostiako ospitale psikiatrikora eraman zuten. Han azterketa egin ondoren ez zuten ospitaleratu eta aske geratu zen. Herenegun goizean ere atxilotutako zentro psikiatriko berera eraman zuten, eta bertan ospitaleraturik geratu zen.

BERRIAk kazetari bat behar du Andoaingo egoitzarako (erref. 08403)

Eskaintzen da:

- Urtebeteko kontratua (juza daiteke)
- Etorbizuneko proiektu batean parte hartzeko aukera

Eskatzen da:

- Kazetaritza ikasketak izatea

Kontuan hartuko da:

- Kazetaritza lanetan esperientzia izatea
- Quark X Press programa erabiltzen jakitea
- Autoa izatea
- Hizkuntzak jakitea

Bidali zure curriculum gba@berria.info helbide elektronikora, erreferentzia zehaztuz.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldekoko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaldia

■ **Ibarra.** Axentxio Iguaran Maliko misiolariaren esperientzia izango da Kultur Etxean 20:00etan, VII. Misio Astearen baitan.

Erakusketak

■ **Ibarra.** VII. Misio Astearen barruan, Arrupe aitaren biografiako argazki erakusketak Parrokia etxeko behekaldean 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

■ **Tolosa.** Encarna Mejía margolari alegiarren olio-pinturak ikusgai Itaie tabernan.

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Uretako sorosle ikastaro antolatuta du Gurutze Gorriak Usabal kiroldegian. Izen-ematea, 607 845 574 telefono zenbakian egin daiteke.

Deialdiak

■ **Tolosa.** XIV Orduko Martxa maiatzaren 18an izango da. Izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen (Araba etorbidea 5) edo a.adiskideak@terra.es helbidean.

■ **Tolosa.** Atxerito (2.362 m) eta Anie (2.505 m) mendietara irteera antolatuta du Oargi elkarteak datorren astebururako. Izen-ematea, elkartearen edo oargi@telefonica.net.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moran, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

■ **Leitza.** Larraia M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



Argazki eder gehiago

Ostegunean amaituko da VII. Hitza Argazki Lehiakeratako argazkia bidaltzeko epea. Beraz, badakizue, bidali Aste Santuan ateratu duzuen argazkia eta argazkilaritzan iaioak zaretela erakutsi. Bi lagunentzako asteburu zoragarria dago irabazlearentzat, Villabonako Bidaide agentziaren eskutik. Hain zuzen ere, Orduñako bainu-etxe batean asteburu igarotzeko aukera izango du irabazleak. Bigarrenak ere badu saririk, Berrobiko Iriarte jatetxean bi lagunentzako afaria.

JOSU REGUERO (TOLOSA) ● Josu Reguero tolosarrak ere bidali digu argazkia, eta hauxe azaldu digu: «Argazki hau Aste Santuan ateratu dut Frantziako Souillac herrian. Bertara joan eta badirudi denbora gelditu egin dela. Merez du benetan!».

JOSELUIS IRAOLA (AMASA) ● Jose Luis Iraola amasarrak, berriz, beheto argazkia aukeratu du lehiaketan parte hartzeko, eta ondorengoa dio: «Argazki hau Aste Santuan ateratu nuen Amasan, laranjak biltzen».

A Agurrak



Zorixonak!

Arkaitz Agirretxe Arozena (Aitsasu). Gaur 4 urte. Zorionak familia eta aiton-amonen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak